

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### HEZKUNTZA SAILA

## 4835

*EBAZPENA, 2023ko urriaren 10ekoa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez ezarzen baita eskabideak aurkezteko, betekizunak eta merezimenduak alegatzeko eta, hala badagokio, egiaztatze dokumentazioa aurkezteko epea, enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko. Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez egin zen prozesu horretarako deialdia.*

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 20ko Aginduaren bidez (2022ko abenduaren 29ko EHAA), enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesurako deialdia egin zen, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako langileen lan-kategorietako plazak modu finkoan betetzeko.

Agindu horren 5. eta 6. oinarrietan aurreikusitakoa betez, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Eskabideak aurkezteko eta tasa (7,82) euro ordaintzeko epea 2023ko azaroaren 3tik 30era bitartekoa izango da.

Epe horretan bertan, deialdian aurreikusitako betekizunak eta merezimenduak alegatu beharko dira, eta, hala badagokio, egiaztagiria aurkeztu.

Bigarrena.– Eskabideak bide elektronikoz aurkeztuko dira, Enplegu Publikoaren Atariaren bidez, <https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/> helbide elektronikoa, bete bitartean adieraziko zaizkion jarraibideei jarraituz. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra onartutako bitartekoetako baten bidez identifikatu beharko da (<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>), edo, bestela, aplikazioak berak emandako aldi baterako erabiltzailearen bidez, eskabidea bete ondoren. Aldi baterako erabiltzaile hori eskaera kontsultatzeko soilik erabili ahal izango da. Gainerako izapideetarako, identifikazio elektronikorako onartutako bitartekoetako bat eduki beharko da.

Enplegu Publikoaren Atari honetatik eta helbide elektronikoa beretik aurkezteak aukera emango du, halaber, deialdian izena emateagatik tasak elektronikoki betetzeko (<https://euskadi.eus/nireordainketa> egoitza elektronikoa ordainketa-pasabidearen bitartez), bai eta betekizunak eta merezimenduak alegatzeko eta, hala badagokio, egiaztagiria aurkezteko ere.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Enplegu Publikoaren Atarian <https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/> helbide elektronikoa, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 10a.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO.